

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

4024

EBAZPENA, 2025eko irailaren 22koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria-rena, hautagaien behin betiko zerrenda osagarri hauek argitaratzeko agintzen duena: Euskal Autonomia Erkidegoan Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen egonkortze-prozesuetan gaindituzat jotako hautagaiena, hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa denean, edo deitutako lanpostu-kopuruan puntuazio handiena duten hautagaiena, hautaketa-prozesua lehiaketan denean.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 12ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioak egonkortzeko prozesuen oinarri orokorrak onartu ziren. Halaber, egun bereko eta organo bereko zenbait aginduren bidez, Idazkaritza azpieskalan (Sarrerako kategoria), Kontuhartzailletza-Diruzaintza azpieskalan (Sarrerako kategoria) eta Idazkaritza-Kontuhartzailletza azpieskalan sartzeko hautaketa-prozesuen deialdiak eta oinarri espezifikoak onartu ziren. Agindu horiek 2022ko abenduaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (239. zk.) eta 2022ko abenduaren 22ko Estaturako Aldizkari Ofizialean (306. zk.) argitaratu ziren.

Hamaseigarren oinarri orokorraren lehenengo apartatuan ezarritakoaren arabera, hautaketa-sistema bakoitzak deitutako lanpostu-kopuruaren barruan, epaimahai kalifikatzaileek Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren bulegoetan eta hamabigarren oinarri orokorrean adierazitako Interneteko helbidean argitaratuko dituzte behin betiko gaindituzat jotako hautagaiak (hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa denean) edo deitutako lanpostu-kopuruan puntuazio handiena duten hautagaiak (hautaketa-prozesua lehiaketa denean), betiere oinarri orokorretan ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Zerrenda horiek, oinarrietan aurreikusitako betekizunak eta gainerako inguruabarrak betetzen direla egiaztatu ondoren, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari aurkeztuko zaizkio, praktiketako funtzionario izenda ditzan, hautaketa-prozesuaren parte den hautaketa-ikastaroan parte hartzeko. Ikastaro horrek Euskal Autonomia Erkidegoko foru- edo toki-administrazioaren batean praktikaldia barne hartuko du.

Aurrekoaren ondorioz, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2025eko martxoaren 11ko Ebazpenaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 52. zk.), behin betiko gainditu zuten izangaiei eta deitutako lanpostu-kopuruaren barruan puntuazio handiena lortu zutenei lehen deialdia egin zitzaion.

Ebazpen horrek 5. artikuluan ezartzen duenez, azpieskala batean baino gehiagotan behin betiko gaindituzat jotako izangaiek azpieskala bakar batean praktiketako funtzionario izendatzea eta hautaketa-ikastaroan horietako batentzat bakarrik onartuak izatea aukeratu beharko dute, eta, ondorioz, aukera egin ez duten azpieskaletako hautaketa-prozesuetan lortutako eskubideak galduko dituzte.

Lehen deialdian hutsik geratu ziren lanpostuak betetzeko (bai azpieskalaren aukera egitearen ondorioz, bai proposatutako pertsonak eskaerarik egin ez zuten kasuetan), Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2025eko ekainaren 9ko Ebazpenaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 111. zk.), bigarren deialdi bat egin zitzaion gainditu zuten izangaiei eta puntuazio handiena lortu zutenei aipatutako lanpostu hutsak bete arte. Izangai horiek, aipatutako eskaera egiteko deitu ez bazitzaion ere, hurrengo posizioetan zeuden.

2025eko irailaren 26a, ostirala

Bigarren deialdian hutsik geratu ziren lanpostuak betetzeko (bai azpieskalaren aukera egitearen ondorioz, bai proposatutako pertsonen eskaerarik egin ez zuten kasuetan), Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2025eko ekainaren 9ko Ebazpenaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 111. zk.), hirugarren deialdi bat egin zitzaien gainditu zuten izangaiei eta puntuazio handiena lortu zutenei aipatutako lanpostu hutsak bete arte. Izangai horiek, aipatutako eskaera egiteko deitu ez bazitzairen ere, hurrengo posizioetan zeuden.

Hirugarren deialdian aurreko paragrafoan azaldutako arrazoi berberengatik hutsik geratu diren lanpostuak betetzeko, laugarren deialdi bat egin behar zaie gainditu duten izangaiei eta puntuazio handiena lortu dutenei, lanpostu hutsak bete arte.

Horregatik, eta hamazazpigarren oinarri orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorritzak baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, epaimahai kalifikatzaileak gaitzat jotzen dituen izangaiek, hogeitau egun balioduneko epean (aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera), dagokion azpieskalako praktiketako funtzionario izendatzeko eskabidea aurkeztu beharko diote Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariari, eta eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu.

Horregatik guztiagatik, aipatutako araudia betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren bulegoetan eta [https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/helbide elektronikoan argitaratzeko agintzea](https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/helbide_elektronikoan_argitaratzeko_agintzea) Euskal Autonomia Erkidegoan Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen aldi baterako enplegua egonkortzeko esparruaren barruan deitutako hautaketa-prozesuetan gainditutzat jotako hautagaien behin betiko zerrenda osagarriak (hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa denean) edo deitutako lanpostu-kopuruan puntuazio handiena duten hautagaien behin betiko zerrenda osagarriak (hautaketa-prozesua lehiaketa denean).

2. artikulua.— 1.— 20 egun balioduneko epea irekitzea, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, praktiketako funtzionario izendatzeko eskaera Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan aurkezteko.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoro korra-
ren bidez egingo da eskaera, url honetan: <https://www.euskadi.eus/registro-electronico-general/web01-sede/es/>; edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduetan.

3. artikulua.— 1.— Praktiketako funtzionario izendatzeko eskabidearekin batera, zortzigarren oinarri orokorrean eta, ezintasun kasuetan, bederatzigarren oinarri orokorrean aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

Bitarteko elektronikoen bidez aurkezten diren dokumentuak dokumentu elektronikokoak izango dira. Honako hauek onartuko dira:

– Dokumentu elektronikokoak, hau da, organo emaileak ziurtagiri elektronikoarekin edo CSVrekin elektronikoki sortu eta sinatutakoak.

– Euskarri ez-elektronikoan (paperean) dauden dokumentuen kopia elektronikokoak (jatorrizkoak edo kopia autentikoak).

Aurkeztu beharreko dokumentuak (jatorrizkoak edo kopia autentikoak) paperean badaude, Zuzenean-Herritarrentzako arreta-bulegoetan edo edozein administrazio publikotako erregistro-gaietan laguntzeko beste edozein bulegotan aurkeztu beharko dira, kopia elektronikoko autentiko gisa digitalizatzeko. Kopia elektronikoko hori erregistratu egingo da, eta bulego horretatik dagokion administrazioari edo unitate izapidegileari bidaliko zaio.

2.– Ez da beharrezkoa izango betekizunei buruzko dokumentazioa aurkeztea, baldin eta interedunek, praktiketako funtzionario izendatzeko eskabidean, berariazko baimena ematen badiote Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari, beharrezkoak diren datu-base ofizialen bidez, honako hauek kontsultatzeko: Espainiako nazionalitatea; hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskatzen diren titulu ofizialak; deialdian eskatzen den hizkuntza-eskakizuna izatea egiaztatzen duen dokumentua, betiere Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota badago; eta, hala badagokio, % 33 graduko edo gehiagoko desgaitasun-aitorpena, euskal administrazio publikoek egina bada.

3.– Nolanahi ere, kasu hauetan, baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- a) Unibertsitateko titulazio ofiziala 1996 baino lehenagokoa denean.
- b) Unibertsitate-titulazioa eskabideak aurkezteko epea amaitu zenean oraindik eman ez bada, egun horretan titulua eskuratzeko moduan zegoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- c) Euskal administrazio publikoek ez dutenean % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-aitorpena egin.
- d) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko datuak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota ez daudenean.

4.– Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen eskalaren beste azpieskala desberdin batean daudenean ere eskabide bera aurkeztu beharko dute, baina Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen eskalakoak direla soilik adierazi beharko dute.

4. artikulua.– Haurdunaldi arriskutsuagatik edo erditzeagatik bakarrik eskatu ahal izango da hautaketa-ikastarora sartzeko atzerapena, hamaikagarren oinarri orokorrean aurreikusitako baldintzekin.

5. artikulua.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak izendatuko ditu hautaketa-ikastaroan onartutako izangaiak, praktiketako funtzionario gisa, ikastaroan dauden bitartean, eta izendapen horrek ondorioak izango dituen data zehaztuko du. Izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio-bidean edo juridikzio-bidean, kualifikatu gabeko izapide-egintza bat delako. Hala ere, zuzenbidez egoki iriztitako jarduketak egin ahal izango dira, eta berraztertze errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da hautaketa-prozesuen behin betiko ebazpenaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 22a.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria,
LEIRE CORRALES GOTI.